

1.ZENBAKIA-2021-MARTXOA

GUKA



AMANCAY GAZTAÑAGA ETA FELIX ZUBIA

**AUTOZAINZA ETA AUZOZAINZA
ESKUTIK**



Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

KAOSAREN URTEURRENA



AMAIA URBIETA ARRUTI

Alarma soziala bizi-bizi zihon *in crescendo* egun eta ordu gutxian. "Eskolak itxiko dituzte", esan zuen norbaitek erre-dakzioan. Harri eta zur, inor ez zen gertatzen ari zena zenbaterainokoa zen neurtzeko gai. "Zer izango da hurrengo, ezingo dugula elkar ukitu?" entzun nion lankideren bati, kexu.

Duela urtebete inor gutxik halakorik esango zukeen arren, oraindik ere gertatzen ari denari neurria hartu ezinik gabiltza gehienok. Gertatzen ari denari, eta, kasu askotan, egiten dugunari. Horrexekin baitauka zerikusizuzen-zuzena gaitzak berak: gure eguneroko jokabidearekin. Kontua sinplea da: zenbat eta jende gutxiagorekin elkartu denok, errazago kontrolatuko da izurritea.

Harremanak guztiz saihestea ezinezkoa da gure jendartean, ordea, eta legeak egiten dituztenek hasieratik erabaki zuten norekin egon gintezkeen eta norekin ez. Lanera joan gaitzke, edo, hobeto esanda, joan behar dugu, eta badirudi ez duela askorik axola horretan zenbat jenderekin izango dugun kontaktu zuzena. Kate produktibotik (ekintza sozioekonomiko

omen da modako hitza) kanpo dagoen edozein ekintza, ordea, galarazita dago. Eta galarazita ez badago, behin eta berriz errepikatuko dizute hobe zenukeela ez egitea, arduragabea izaten ari zarela. Laster jango zaitu barrutik erruduntasun kristau madarikatuak, eta hurrengoan ez zara joango lagunekin edo familiarekin afaltzera. Dena den, ez da hori gehien kezkatzen nauena. Ez naiz ari inoren kale zurruterako eskubidea defendatzen, baina badirudi jendea ez duela kezkatzen antolatzeke eta biltzeko aukera ebasteak, edo, behintzat, horrenbeste mugatu izanak. Adierazkorra da hori.

Izan ere, gordina da oso egoera hor kanpoan, eta oso zaila da norberaren ekintzak neurtzea. Ospitaleetako langileek jo eta fuego jarraitzen dute lanean burua altxatzeko tarterik gabe, jende asko ari da sufritzen gaitzak jota, eta, bitartean, herri-

Gure aurreneko elkarrizketatuek beharrezkotzat jotzen dute iraultzea zaintzarekiko dugun irudia eta harekiko dugun harremana

tarren ekonomia dilin-dalan dabil, prekaritatea areagotzeko eszenatoki perfektuan ezegonkor. Errealitate horien isletako bi dira jarraian irakurgai dagoen elkarrizketako protagonistak: Felix Zubia medikua eta Amancaey Gaztañaga kulturgilea. Gaitzaren alderdirik gordinena gertutik ezagutu du Zubiak, eta Gaztañagak etenda ikusi du guztiz bere jarduna. Beren bizipenetatik egin dute biek egoeraren irakurketa, eta biek beharrezkotzat dute daukagun zaintzaren irudia eta harekiko harremana iraultzea.

Gaztañagak iradoki bezala, ordea, boterea eta lehia oinarri dituen sisteman ez du tarterik zaintzak, eta agerikoa da hori jarraitu beharreko neurriei begiratuta. Análisi zabalagoak orri askotarako emango luke; izan ere, egiari zor, konplexua da egoera. Uste dut autokritikotik gutxi dugula eta beti pentsatzen dugula norberak hartzen dituen arriskuak ez direla horrenbesterako. Beste alde batetik, aldiz, irakiten jartzen zait odola teorian gu babesteko diren neurriok askotan herritarrok babesgabe uzten gaituztela pentsatzen dudan aldiro, tranpetan ibiltzera behartuta, isunen beldurrarekin eta erruduntasunaren kontzientziarekin borrokan. ■

KONTZIENTZIAK ASTINTZEKO GARAIA

Felix Zubia eta Amancay Gaztañaga

Kulturgileek eta medikuek, biek ala biek jasan dituzte pandemiaren ondorio oso lazarriak. COVID-19ak, izan ere, ez du jendearen osasun fisikoa soilik jarri arriskuan. Gertutik ezagutzen du eragin fisiko hori Felix Zubia (Zarautz, 1974) Donostiako Zainketa Intentsiboen Unitateko buru den mediku eta unibertsitateko irakasleak, baina bada gaitzak –edo haren ondorioek– beste plano batzuetan suntsitu duen jendea ere, kulturgileak kasu, Amancay Gaztañagaren (Zestoa, 1980) moduan. Hain zuzen, abeslaria, musikaria, aktorea eta antzerkigilea da Gaztañaga. Lehenengoak lehen lerrotik ezagutu ditu, eta ezagutzen jarraitzen du, gaitza pairatu dutenen zein senideen sufrimendua, eta ezagutu du, baita ere, ospitalea gainezka egitear. Bigarrenak, aldiz, bere jarduna guztiz eten behar izan zuen, bizimodua ateratzeko esku artean zituen proiektu denak hari batetik zintzilik geratu baitziren bizpahiru hilabetez.

Testua: **Amaia Urbieta Arruti**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Biek jarraitzen dute grina handiz lanean gaur egun, baina azken urtea ez da debalde igaro inorentzat. Bizitakoak eman die zer pentsatua eta zertaz hausnartua. Ideia horiek elkarren artean parteka ditzaten jarri ditu UKTk albo Gaztañaga eta Zubia.

Oholtza zure lantokia da hein batean, Amancay. Koronabirusak kulturgile guztiak jaitsi zintzuzteten

bertatik. Igo zarete berriro, baina zailtasun handiz diharduzue, ezta?

Amancay Gaztañaga: Bai. Etxeratu gintuztenean, *Alardea* telesaila grabatzen ari ginen, eta taldekide guztiok kutsatu ginen. Hasieran ez genekien kutsatuta geundenik; orduan deitzen zenuen, ez zizuten hartzen, dena saturatuta zegoen, probarik ez zuten egiten... Nik gero





egin nituen probak, handik hilabete batzuetara, osasungintza pribatutik. Hori dena antsietate handiarekin bizi izan nuen. Ordura arte zeneukan dena bertan behera gelditzen eta erortzen ikusi nuen: Grisesekin diskoa ateratzear ginen, *Matriuska* orduantxe estreinatuta [Iraia Eliasekin batera oholtzaratutako antzez-lana] genuen, Alardea grabatzen ari ginen... Gainera, gure lanak prekaritate handia dauka. Ez gara langile kontsideratuak eta, kasu askotan, ez geneukan langabezia eskatzeko aukerarik ere. Bizi izan genuena larria izan zen. Hilabete batzuk antsietate eta beldur handiarekin pasatu genituen.

Gero, egia esan, antzerkigintza nahikoa ondo bideratu da, eta ikus-entzunezkoan ere lana ondo egin ahal izan dugu. Baina musikaren

munduan gabiltzanontzat oso-oso gogorra ari da izaten.

Felix, zuk lehendik ere bazenekien zer den jendaurrean egotea, bertsolaria baitzara. Aurten, ordea, oso bestelako arrazoien gatik piztu duzu jendearen arreta. Nola daramazu horren luzez egotea agertoki gainean?

Felix Zubia: Dezente gogorra egiten ari zait. Beti izan dut oso gustuko irratia; entzule amorratua izan naiz. Komunikabide oso goxoa iruditzen zait, eta gauza asko azaltzeko tartea ematen du. 2013tik egiten dugu *Osasun Etxea* irratia. Orain arte, hortxe genbiltzan oso maila xumean; iritsi zen, ordea, ditxosozko pandemia hau, eta lehen lerroan jarri gintuen gaitzak edo egoerak. Guk harreman zuzena daukagu gaixoekin, eta komunikazioan zulo handi bat ere egon da; beti esaten dut zarata asko izan dela eta esanahi gutxi. Horrek jarri gaitu lehen lerroan, gehiegizkoan, kasu askotan.

Behin gauza bat esan nuen, eta hurrengo egunean egunkari guztietan nire izena eta argakia azaldu ziren. Deigarria egin zitzaidan; izan ere, esan nuen horrek ez zuen ezer berezirik adierazten. Gogorra egiten da hori, karga bat gehiago delako. Bestalde, oso zaila da mezuaren intentsitatearekin asmatzea. Mezuak neutralak direnean oso intentsoak izan daitezke, baina hemen jende askoren bizitza dago jokoan, bizimodua ere bai, eta horrek buruko min dezente sortu dizkit. Gauzak nola esan inor mindu gabe, zer esan... ez da erraza izan.

Zuen ofizioak zertan aldatu dira praktikan urtebete honetan? Zertara ohitu behar izan duzue?

A.G.: Nirea asko aldatu da. Guk kontaktuko ofizioa daukagu, eta beraiek ere bai [Zubia seinatzen]. Gorputzarekin lan egiten dugun



"Nire ekintzak besteekiko ondorioak ditu; horren kontzientziarik ez badugu gaizki gabilitza"

"Zaplasteko bat jaso eta 'ez da niretzat' pentsatu dugu"

ofizio bat daukagu, besteekin kontaktua beharrezkoa da; antzerkian, behintzat, erabat beharrezkoa. Ikus-entzunezkoen grabaketena, adibidez, oso gogorra da. Aktoreek denbora asko egoten gara maskararik gabe, baina udan tokatu zitzaigun kalean 40 gradutan grabatzen egotea, hamahiru orduz maskareekin. Askotan jendeak ez daki gure lana zer den edo nola egiten den. Oso lan fisikoa eta kanpoan egitekoa da, eta bai, aldatu da.

F.Z.: Gurea ere dezente aldatu da. Nik ez nukeen inoiz pentsatuko horrelako izurrite bat biziko genuenik. Norbaitek bizi izan dugunaren hurbilpen bat egin nahi badu, Albert Camusen *La peste* irakurtzea gomendatuko nioke. Liburu oso ona da, eta bertan azaldukoen antzeko sentsazioak bizi izan ditugu.

Guri tokatu zaigu, alde batetik, inoiz baino ordu gehiago pasatzea lanean. Bestalde, berria den gaixotasun bat eza-

gutzea guztiz zerotik abiatuta. Hala esaten zidan lankide batek: "Liburuetan ez dagoen gaixotasun bat artatu behar izan dugun lehenengo aldia da". Eta gero, batez ere, hainbeste gaixotasun berean elkarren gainean izatea gogorra izan da. Etorri izan zaizkigu bederatzi pertsona bata bestearen atzetik. Telefonoa hartu eta ordubeteen lau kasu komentatzen zizkizuten. Lau kasu larri. "Non sartuko ditugu? Nola egingo dugu?", buruko min horiek genituen.

Amancayk aipatu duen bezala, gure lanaren oinarri bat komunikazioa da; ahozkoa ez den komunikazioa ere bai. Irribarrea galdu dugu, ukimenerako barrerak jarri dizkigute, hitz egiteko gaitasuna galdu dugu; beti barrera baten atzean gaude. Zerbait egin behar badugu, NBE

(norbera babesteko ekipamendu) osoa jantzi behar dugu, eta iritsiko ez ote garen beldurra- rekin bizi gara. Gainera, gure gaixoak arnasmailu baten menpe daude. "Arnasmailua izorratzen baldin bada, nola iritsiko naiz ni horra [gaixorengana]?" , pentsatzen duzu. Horretan ere ikasi dugu, eta txandetan antolatu gara beti norbait egon dadin, batean ez bada bestean, jantzita eta iristeko prest. Baina kezka horiek denek karga handia ekarri digute.

Zer da gogorrena egiten zaizuen?

A.G.: Gogorrena egoera bera da, baita egon den informazio saturazioa ere; gauza asko ez dira egia izan. Gogorra egin zait saturazio hori eta morboak gure gizartean daukan presentzia ikustea. Askotan, komunikabideetan erabiltzen da, eta horrek sarritan beste guztia beste plano batean uzten du. Niri oso bortitza egiten zait norberak pentsatzeko edo sentitzen duena askatasunez adierazteko gaitasuna galtzea, nahiz eta batzuetan ez izan orokorki sentitzen dena. Horrez gain, bortitza egin zait egia bakar bat ez dagoela jabetzea. Gaixotasuna erreala da, hor dago, jendea sufritzen ari da, ospitaleak gainezka daude, baina beste jende asko lanik gabe dago. Pluraltasun horretaz, errealtate poliedriko horretaz kontziente izateak asko eragin dit.

F.Z.: Niretzat gogorrena izan da horrenbeste jende momentu berean horren gaizki ikustea. Hainbeste heriotza. Ia 400 paziente izan ditugu gure unitatean, Donostian bakarrik. Pentsa zer bolumen den! Zenbat sufrimendu, zenbat isolamendu... momentu oso gogorrak bizi izan ditugu. Hori alde batetik, eta bestetik, gogorra izan da gizarte honetan zeinen geurekoiak garen ikustea; zer joera gutxi daukagun elkartasunerako. Pertsona baten sufrimendua baino askoz gehiago axola zaigu gure bost minutuko jarduera bat; ez zaigu axola hiltzen ari dena. Kopuruak hortxe daude: egunero hamabost pertsona hiltzen ari dira Euskal Herrian, eta ez dut ikusten nik horren gaineko izugarrizko kontzientziarik; izugarria da. Bestalde, jende asko dago lanik gabe, jende asko dago bizimodua aurrera eramanez, eta horren gainean ere ez dut ikusten hainbesteko kontzientziarik. Hitz egin, egiten da, baina ez dut

ekintzarik ikusten. Horrek ere sortzen dizu barruan nolabaiteko mina. Non bizi gara, zer jende klase gara? Askotan esaten duzu, "zer egiten ari gara?". Ez dakit, dimentsioa hartzea ere askotan kostatu egiten zait.

Alde onik topatu diozue honi guztiari?

A.G.: Bai, gauza denek dute beti alde ona. Kulturgileok proiektu askotan egoten gara sartuta, eta askotan hori prekariedade kontua da. Nahiko genuke gauza batean zentratu eta horixe egin, baina gure lanak behartzen gaitu oso aktibo egotera. Hasiera batean [pandemiaren hasieran], gizarteak egin zuen geldialdi horrek hausnarketarako denbora eman zigun denoi. Gero, egia da, Felixek esaten duen bezala, segituan ahazten zaigula gertatutakoa. Hor dago historia, eta ziklikoa da: egon dira izurriteak, gizakiok askotan egon gara egoera honetan historia guztian zehar... baina ahaztu egiten zaigu. Momentu batez, naturak beste era batera arnastu zuen, eta guk ere geldialdi hori arnastu egin genuen. Dena geratzeko aukera hori oroitzeko edo berreskuratzeko moduko zerbait izango da denbora tarte bat pasatzen denean. Badakit gu etxean geundenean osasun langileak ez zeudela geldialdi horretan murgilduta, baina etxean geundenok bat-batean mundua geratu egin zela sentitu genuen. Beldurgarria izan zen, baina ohartu ginen munduak aurrera egiten zuela gizakirik gabe ere.

F.Z.: Profesionalki izugarrizko ekarpena da. Gaixotasun berri bat hain azkar ez da sekula ezagutu, ez da inoiz hain azkar egin tratatzeko bidea, nahiz eta oraindik bide horiek oso murritzak izan. Ez da txerto bat sekula hain azkar garatu, ez da pandemia bat mundu mailan hain era zabalean behin ere artatu. Hori zientziaren eta medikuntzaren aldetik izugarria da. Bizipenak hortxe geldituko zaizkigu; geure minekin eta geure orbainekin, baina hortxe. Aipatu dut gizartearen elkartasun falta, baina aldi berean, gizartearen zati handi baten elkartasuna ere bizi izan dugu; niri iritsi zait elkartasuna, pertsonalki. **Komunikazioa, informazioa, soinua... aipatu dituzue. Hedabideak informatu eta informatu ari dira koronabirusaren inguruan. Zer jarraipen egin diezue albisteei?**



"Koronabirusa joaten denean, maskara jarriko zaie berriro lehendik ere bazeuden arazoei"

"Pandemiak nabarmendu egin ditu gizartearen onena eta txarrena"

A.G.: Nik ez dut telebista ikusten, saihesten dudan zerbait da; oso gauza konketuak irakurtzea gustatzen zait. Momentu batean, gaitzagatik beldur handia pasatu nuen, neuk jasan nuelako. Baina, aldi berean, kontzientzia handia eduki nuen osasuna tratatzeko dugun moduz, hala erakutsi didatelako, agian. Pentsatu nuen zer den osasuna, eta nola bizi dugun osasuna gizarte bezala. Niretzat oso garrantzitsua da; izan ere, txikitatik jaso ditut balio oso onak, nire burua zaintzeko eta besteak zaintzeko. Hedabideen leiho hori drastikoki itxi nuen, itxita edukitzen jarraitzen dut eta mesede handia egin dit. Ni saiatu naiz nire kabuz, nire biziaren errealak izaten eta niretzat zabor handia izan dena kanporatzen.

F.Z.: Nik nik dudan lanbideagatik eta komunikazio jardueragatik albisteei adi egon beharra



daukat. Askotan, irakurrita soilik faltsuak direla dakidan berri asko irakurtzen ditut. Baina horixe dabilta, bolo-bolo; neurria hartzea kostatu egiten da. Beste askotan, ikusten duzu titularra, irakurtzen duzu testua, eta biak ez datoz bat. Nik uste dut beste pandemia handi bat daukagula, titular potoloak bilatzearena, nahiz eta errealak ez izan. Askotan ikusi dugu hori. Bestalde, zientziaren bidea erabili beharrean, askotan, publizitate bideak erabili dira gauza zientifikoak banatzeko, eta hori izugarria da. Horri adi egon behar duzu. Hala ere, etengabeko berri jario horretatik albisteak oso azkar iragazten ikasi dut.

Felix, prentsan idatzi zenuen etsita zaudela. Jendartea ere nekatuta dago. Zentzu horretan nola zaudete? Zenbat indar duzue?

F.Z.: Beharbada neuk egin nuen akatsa, baina albiste hori ez zen etsipena adierazteko; edo agian interpretazio asko zituen. *Gehiago ezin duzunean* zen artikulua izenburua, eta hori zen izena, batez ere eta garbi esanda, nazka-nazka eginda gaudelako, zentzu askotan. Pasatu ditugu gure gorabeherak, momentu hobeak eta momentu okerragoak. Guk bada-kigu jendeak gure beharra daukala eta hor jarraituko dugula; alde horretatik, ez daukagu indar faltarik. Gure nekearekin, gure ondorioekin, baina ez daukagu indar faltarik, ez gaude etsita. Gertatzen ari denarekiko alarma deia zen. Artikuluak irakurketa asko zituen, baina adierazi nahi nuena zen hemen jende asko ari dela hiltzen eta sufritzen, eta horiek ez direla zenbakiak, horiek pertsonak direla.

Bide guztietatik jasotzen ditugun notiziak oso geurekoiak dira; "nire jarduerak ez du arriskurik", pentsatzen dugu. Elkar zaintzeko joerarik ez daukagu, eta inork ez du horretarako beharrik ikusten. Guk dena eman beharra daukagu elkar zaintzen ez duen gizarte batean, eta besteen sufrimendua eta heriotza zenbaki bihurtzen dituen gizakiaren alde. Hori kontraesan handi bat da, eta azaleratu egin behar da. Jendea hiltzen ari da, jendea sufritzen ari da, eta elkar zaindu ezean, ez gara hortik aterako. Piramide horren erpinean gaude osasun langileak, punta hortxe dago, bai, baina oinarrian zer daukagu? Hori adie-

razi nahi nuen. Ez gaude jota; nekatuta bai, gure zauriekin, baina, noski, aurrera jarraitzeko nahikoa indarrekin.

A.G.: Horren harira, gauzatxo bat esan nahiko nuke. Osasuna askotan jartzen dugu kanpoko norbaiten, salbatzaile baten, eskuetan. Nik egin dezaket nahi dudana nire gorputzarekin, eman diezaioket edozein tratu, eta gero kanpoko norbaitek salbatuko nau. Uste dut gizarte moduan hausnarketa potolo bat dagoela egiteko: zer da osasuna eta nola zaintzen du bakoitzak bere burua? Noski, beti egongo da mediku baten eskuetan jartzeko beharra bizitzako momentu konkretu batzuetan. Adibidez, askotan ikusi dut jendea egunean bi tabako pakete erretzen eta gero arduratuta dagoela esaten. Noski, ni ere egongo nintzateke. Norberak zaintzen du bere gorputza. Piramide horren oinarrian badago autozaintza ere.

F.Z.: Eta osatzerik balego, auzozaintza ere bai, hau da, elkar zaintzeko beharra. Nire ekintzak ondorioak ditu besteekiko. Horren kontzientziarik ez badugu, gaizki gabilta.

A.G.: Etsita, nik etsita inoiz ez nuke nahi egon. Baina banago oso nekatuta; aspalditik gaude horrela kultur-gileok. Aurretik ere bazegoen arazo bat argiztatu duen fokua izan da hau. Izan ere, gure lana prekarioa zela bagenekien. Bagenekien gure lanean lege hutsuneak daudela, hutsune juridikoak, hutsuneak laguntzak emateko dauden moduetan... Diputazioak esan zuen zozketa egingo zuela laguntza zeini tokatzen zitzaion erabakitzeke, eta nik argi nuen ez nuela parte hartu nahi zozketa horretan. Nik ez dut nahi horren gauza serio bat, nire etorkizuna, zozketa bat izatea.

Pandemiak nabarmendu egin ditu gizartearen onena eta txarrena. Guk, sortzaile bezala, eremu txarrenean dauden elementu asko ditugu, eta hor jarri du fokoa pandemiak. Nekatuta, oso nekatuta nago. Gainera, sorkuntzaren barruan esparru asko daude eta kaltetuenak musikariak izan dira. Oraindik berriz hasi ez den jarduera da musika, eta jende horrek urtebete darama ezer egin gabe. Hori bortitza da, baita horren kontzientzia edukitzea ere.

Koronabirusa kontrolpean egongo balitz, konpondu egingo liriateke zuen ofizioek di-

tuzten arazoetako batzuk. Hori iristerako, ordea, denbora igaroko da. Bitartean, zer eskatzen duzue?

A.G.: Ez dakit koronabirusa pasatzen bada arazo batzuk konponduko al diren. Berriz ere maskara jarriko zaie arazo horiei. Osasun publikoan ere prekaritate handia dago. Hori nik ere hautematen dudan zerbait da, eta uste dut horri ere ez zaiola aterabide handirik ematen. Gure kasuan, berriz hasiko dira gauzak egiten, eta berriz sartuko gara gurgil horretan. Alde batetik, nahi dut pandemia "honaino" esateko zerbait izatea; has gaituzen gauzak ondo egiten. Bitarte horretan, kontzientzia orokorra eduki behar dugula uste dut. Kontzientzia soziala, izaki sozialak garelako eta ez indibidualak. Zaila da, bakoitza geure etxeakoak garelako, eta bakoitzak pentsatzeko era bat daukalako.

F.Z.: Ni ere mezu horrekin gelditzen naiz. Agian, beste ikuspuntu batetik, baina kontzientzia sozialaren beharra daukagu. Nire ekintzek besteengan eragina dutela ohartzea da garrantzitsua; hau da, nik arriskua hartzen dudana momentuan, beste denak kutsatu ditzakedala jakin behar dut. Elkarzaintzaren beharra daukagu, zaintza lanek daukaten garrantzia aitortzeko beharra; etxekoen zaintzak duen garrantzia lehenik, eta beste maila batzuetako zaintzak ondoren.

Nahiko nuke sortzaile guztien aldeko mugimendu indartsu samarra sortzea hemendik. Kulturgileen egoera indartu dadila, badelako denbora luzez alde batera utzita izan dugun sektore bat. Nolabait, itzalpean izan da kulturgintza, eta azaltzen da herriko festak direnean edo beste zerbait dagoenean, baina, bitartean zer? Badago oso gaizki tratatua izan den beste sektore bat ere: zientzia ikertzailena. Horien bizi baldintzak lotsagarriak dira. Izugarriko ikasketak egin dituzte pertsona horiek, beren bizitzaren zati bat horri eskaini diote, eta gure bizimodua aldatu eta hobetu behar dute, era oso prekarioan, gizarte segurantzarik gabe, miseria bat kobratzen. Horiei eskatzen al diegu punta-puntan ibiltzea? Hori ere bada hobetu beharko genukeen beste sektoreetako bat.

Hitz potoloa da kontzientzia soziala. Zer bideri heldu beharko litzaioke horra heltzeko, edo behintzat, denon artean egoera guztia hobeto kudeatzeko?

A.G.: Kontzientzia soziala kontzientzia pertsonaletik hasten da, eta pertsonala politiko bihurtzen da beti. Kapitalismoak norbanakoa erabat deusezten du produktibitatearen izenean; masa bat sortzen du. Masa horretan sartzen dira lehia, botere nahia; hau da, sartzen dira kontzientzia sozialarekin zerikusirik ez daukaten bizitzeko moduak, eta zaintzarekin erabat deskonektatuta dagoen gizartea sortzen da. Ez dakigu zer den zaintza, ez daukagu ideiarik ere. Ez dakigu geure burua zaintzen, eta, beraz, nola jakingo dugu beste pertsona bat zaintzen? Bide luzea daukagu egiteko. Nola egin bide hori? Ez dakit, gauza asko berrabiarazi egin beharko genituzke.

F.Z.: Oso zaila da, eta oso gauza kuriosoa gertatu da. Normalean, zaplastekoa behar izaten da horrelako egoera batetik esnatzeko. Zaplastekoa jaso dugu, eta ezkutatu egin dugu. Hori ere tristea da. Jaso dugu zaplasteko bat, eta "ez da niretzat" esan dugu. Nik zaila ikusten dut horri buelta ematea. Aurrena norberak egin beharreko lana da, baina gero, beharbada, jarrera aktiboagoa beharko genuke garrantziarik ez duten eta garrantzia ematen diegun zenbait gauza ezabatzeko: zenbait mezu, bizimoduaren zati, entretenimendu modu, bizi estilo guztia, kontsumorako joerak... Horrek zure buruarekiko oso kritikoa izatea eskatzen du, eta hori oso zaila da. Gure burua aldatzea baino errazagoa da errua beti besteei botatzea. Baina nik ez dut beste biderik ikusten.

Nola begiratzen diozue zuen etorkizunari?

F.Z.: Nik ez dut etorkizunik ikusten momentuan, ez dudalako epe luzera begiratzeko fokurik. Gure itxaropena da ahalik eta jende gehien txertatzea eta horrela lana murriztea. Orduan hasiko gara etorkizunean pentsatzen, baina momentu honetan, ez daukagu epe luzerako ikuspergirik. Ez daukagu burua jasotzerik ere. Dena den, badira gertatzea gustatuko litzaidakeen hainbat gauza: gustatuko litzaidake aipatu ditugun autozaintzako


eta elkarzaintzako kontzientzia piztea, osasungintzako prekaritatea murriztea, osasungintza egokiago bat sortzea, osasun publikoko laguntza denak indartzea... Baina momentu honetan, beharbada, zurrunbiloaren erdian gaude, eta zurrunbilotik irteteak lana eragiten digu. Gero pentsatuko dugu nora abiatu.

A.G.: Kuriooa da, ni ere egunerokoa ari naizelako bizitzen. Horretan bat egiten dut Felixekin. Guk ostiral honetan [otsailaren 19an] *Atzerrian lurra garratz antzezlan*a daukagu, baina ez dakigu emanaldi hori egingo den, bertan behera geratuko den edo zer gertatuko den. Horrenbestez, egunerokoa ari gara bizitzen; batzuetan lasaitasunarekin, beste batzuetan beldur handiarekin. Etorkizunean zer? Kultura politika sakon eta on bat beharrezkoa litzateke, eta kulturen lan egiten dugunok kontzientzia hartzea ere bai. Badakit gure lanak oso abstraktua eman dezakeela beste begietan, baina lan bat da, eta gu ere hor gaude. Langileak gara, eta guretzat ere egon behar du batestuko gaituen politika konkretu baten.

Bukatzeko, aholku bat eman beharko bazeniotela duela urtebeteko Amancayri edo Felixi, zer esango zenioke?

A.G.: Telebista azkarrago itzaltzeko eta bere ahalmenean sinesteko esango nioke nire buruari; eta lasai egoteko.

F.Z.: Nik zera esango nioke neure buruari: "Preparatu hadi, izugarria zetorrek-eta gainera. Hartu patxadaz, momentu txarretan ez ito, eta saiatu, nahiz eta ez den erraza, arnasbideak bilatzen". ■




Ikusi eksklusiban Amancay Gaztañagari eta Felix Zubiari egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



AITTOLA ETA BERE PAISAIK


GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA



Urrutira joan gabe ere aurkitzen dira txoko politak, eta eskualdean badira horietako batzuk. Azkoitia, Deba eta Elgoibar artean, adibidez, badira paisaia zinez dotoreak.

Aurreneko txangoa proposatzeko, Azkoitira joan da GUKA, Debarekin muga-mugan dagoen Madariaga auzora. Itsasotik hamar kilometro eskasera, baina itsas-mailatik 600 metrora. Mendi artera. Aittola Zar baserrian hasi eta amaitu daiteke txangoa, eta, tartean, kilometro batzuk egin daitezke maldan gora eta behera, txoko ederrak ezagutuz.

Mendi-bueltak, tontorrek eta larre artean jira eta buelta aritzeko makina bat aukera eskaintzen ditu inguruak. Baserritik abiatu, pinu artetik igaro eta Aittolako gurutzea da paisaiaz gozaten hasteko ibilbideko lehen geltokia. Gertu-gertu, metro batzuk garaiago





den Zorrozpe tontorra aurki daiteke, eta handik bistaratzten dira beste makina bat tontor eta auzo; baita itsasoa ere. Baina igoera neketsua ere izan daiteke: izan ere, tontorrerako azken igoera ez da oso erraza.

Gogotik gozatu daiteke jaitsieran, txorien kantuekin pinudi artean, eta auzoaren puntu berezi bat agertuko da segidan: Marikutz putzua. Idiak eta ganadua ez dira urrun ibiliko.

Azkenik, goiz pasarekin amaitzeko, Aittola Zar jatetxea geraleku aproposa da ibilbidea borobiltzeko eta sabela betetzeko. Horiek bai kilometro zero produktua, jaki denak etxeoak. Kroketa, babarrunak eta txuleta; ongi merezitako bazkaria tratu ezin hobean.



Aurreneko txangoa egiteko Joxe Izagirre Aittola Zar jatetxeko nagusiaren laguntza izan dugu. Ikusi bideo erreportajea eskusiban, sakelakoarekin kodea eskaneatuta.


Motzean

Lau geldialdi

- 1. Gurutzea eta merenderoa
- 2. Zorrozpe tontorra
- 3. Marikutz putzua
- 4. Aittola Zar jatetxea

Nola iritsi

- **Azkoititik:** GI-2634 errepidea hartu Azkaratera, eta ondoren GI-3210 errepidea, Madariaga aldera.
- **Autobidez:** Kostaldetik bertaratzeko, autobidean Bilboko noranzkoa hartu, Itziarko irteeran atera, eta GI-3210 errepidea hartu, Lasturretik barna. Bestela, Elgoibarko irteera aukeratu, eta GI-2634 errepidetik Azkarate igo ondoren, GI-3210 bidetik Madariaga auzora hartu. ■



Etxetik ohiturak sortzen



UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

B

K

erto



UH

ur

ZH

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultur bonoei esker, batu gure proiektura eta 12 euroko deskontua izango duzu aurtengo kuotan. Informazio gehiago: bazkide@ukt.eus